



Testuen zuzentasuna eta erregistro akademikoen bereizgarriak

ECTS kopurua

3

MODALITATEA

30 ordu asinkrono. Ikasle bakoitzak nahi duenean egin ditzake zereginak.

EGUTEGIA

EGUTEGIA

2026-02-02/2026-06-30

IRAKASLEAK

Igone Zabala
Pablo Albizu
Maria Jesus Aranzabe

IKASTAROAREN EDUKIA

Edozein gizartetan, goi-mailako tituludunengandik espero da eredugarriak izatea hizkuntzaren erabileretan, alegia, hizkuntza zuzen, egoki eta zehatza erabiltzeko gaitasuna izatea. Doktorego-tesia da goi-mailako lan akademikoa, jakintza-alor espezializatu bateko adituen komunitateko kidea izateko atea zabaltzen duena. Ikerketa zuzentzeko erantzukizuna doktoreei dagokie eta, gainera, doktore titulua izatea nahitaezkoa da unibertsitatean irakasle-lanpostu iraunkor bat lortzeko. Horrenbestez, doktorego-tesia euskaraz egiten duten doktoregaiek ekarpen handia egiten dute ikerketan eta irakaskuntzan euskararen erabilera sustatzeko helburuari begira. Doktorego-tesiak hizkuntza-kalitatea izan dezan, nahitaezkoa da zuzentasuna zaintzea, alegia, gramatika, euskara batuaren arau orokorrak eta estilo formalerako arauak zaintzea. Horretaz gain, testuak komunikazio-egoerarako egokia izan behar du, alegia, erregistro akademikoak zaindu behar ditu: lexiko eta fraseologia akademikoa, komunikazio akademikorako estilo-arauak eta terminologia. Ikastaro honetan, euskal komunitate akademikoan ohikoak diren akatsekin lotutako gaiak landuko dira. Hauek dira jorratuko diren gaiak.

1. Testu-genero akademikoen ezaugarriak
2. Testu akademikoen kalitatea: zuzentasuna eta egokitasuna
3. Zaindu beharreko gramatika eta lexiko kontu batzuk:
 - 3.1. Deklinabidea
 - 3.2. Aditzen erregimena eta komunztadura
 - 3.3. Aditzen aspektua, aldia eta modua
 - 3.4. Nahastu behar ez diren hiztegi elementu batzuk
4. Euskara batua, euskara batuaren estilo zaindua eta erregistro akademikoak
5. Testu akademikoetan ohikoak diren erabilera desegoki batzuk: kohesioa, konexioa eta puntuazioa
6. Testuen kalitatea zaintzeko zenbait baliabide eta laguntza-tresna
7. Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ)



IRAKASKUNTZA-HELBURUAK

- Testu akademikoen eta, bereziki, doktorego-tesiaren ezaugarrien kontzientzia hartzea.
- Euskarazko testu formalean, baita testu akademikoetan ere, ohikoak diren gramatika- eta lexiko-errore ohikoenen kontzientzia hartzea, eta berariaz lantzea.
- Testu akademikoetan maiztasun handiz aplikatu behar diren euskara batuaren arauen kontzientzia hartzea, eta berariaz lantzea.
- Euskara batuaren estilo zainduaren arauen kontzientzia hartzea, eta berariaz lantzea.
- Euskarazko erregistro akademikoen bereizgarriak diren zenbait elementuren kontzientzia hartzea, eta berariaz lantzea.
- Testu akademikoetan kohesio-, konexio- eta puntuazio-mekanismoekin lotutako erabilera desegoki batzuen kontzientzia hartzea, eta berariaz lantzea.
- Testuen kalitatea zaintzen lagundu dezaketen zenbait baliabide eta laguntza-tresna ezagutzea, eta erabiltzen trebatzea.
- Ahozko testu akademikoetan erabili beharreko euskara batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) ezagutzea, eta horrekin norberak dituen zailtasunen kontzientzia hartzea.

EBALUAZIORAKO METODOLOGIA

Ikastaroan hainbat material mota jarriko dira ikasleen eskura (txostenak, artikulatuak, bideoak...). Ikasleek material horiek landu beharko dituzte ezarritako epean, eta edukiak hobeto ulertzeko eta aplikatzeko ikastaroan bertan jarriko diren autozuzendutako galdetegiak egin beharko dituzte nahitaez. Horretaz gain, haien doktoretza-tesiaren zati bat berrikusten joango dira gaiak landu ahal. Zalantzak argitzeko, foro bat edukiko dute eskura, eta aurrez aurreko tutoretzak ere eskatu ahal izango dituzte ikasleek.

Azken ebaluazioa bi tresnatan oinarrituko da:

- a) Galdera teorikoak eta praktikoak izango dituen galdetegi bat.
- b) Aukeratu duten doktoretza-tesiaren zatiaren azterketa metalinguistikoa, eta berrikusitako testua.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ebaluazio-galdetegiko galdera teorikoak egokiro erantzutea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian Interneteko kontsulta-baliabideekin lotutako galderak zuzen ebaztea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian lortutako puntuazioa. % 45
- Norberak idatzitako tesi-zatian, ikastaroan landutako elementuen berrikuspena egokiro egitea. % 45